

**BELDUR
BARIK**
#LEHIAKETA

ZABALDU ZURE BELDUR BARIK JARRERA!

¡COMPARTE TU ACTITUD BELDUR BARIK!

LEHIAKETAREN OINARRIAK

BELDUR BARIK JARRERA 2016



ERAKURTZEN DU GURE GAIARI
BARRIKERDIAK EZ
DAGU A LA VIDA ENFERA
CONTRA LAS ENFERMEDADES

ANTOLATZAILEA
ONSANIZA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



EMAKUNDE
Mujeres al frente

BULTZAILEAK
IMPULSAN



Bizkaia
Bizkaia



Diputación Foral de Álava
Diputazioa Foral de Álava



Diputación Foral de Álava
Diputazioa Foral de Álava



EULDE
Euzko Unibertsitateko
Lanbidearen Departamentua



BERDINSAREA
Berdintasunerako
Departamentua

LARUNTZAILEAK
DOLAEZTAN



Laruntzaileak
Dolaeztan



Euzko Legeburu Batzar Nagusia
Euzko Legeburu Batzar Nagusia



eitb
Euzko Irrati eta Telebista
Korporazioa

1. LEHIAKETAREN HELBURUAK



Beldur Barik programak Beldur Barik Jarrera! lehiaketaren 7. edizioa antolatu du. Lehiaketarekin emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartu, baloratu eta bultzatzen da. Lanak errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak izan behar dira.

Parte hartzen duten proiektuek Beldur Barik jarrera islatu behar dute. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeke konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate tekniko edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da, nesken ahalduntzetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen konpromisoa matxismoaren aurka.

Zer da Beldur Barik Jarrera? Honako hau egiten duena:

1. Indarkeria sexista zein indarkeria matxista (translesbohomofobia) existitzea ahalbidetzen duten faktoreengan hausnartzen du.
2. Gazteek sexismoaren ondorio diren ezberdintasun egoerak eta adierazpenak nola bizi dituzten identifikatzen du.
3. Indarkeria sexista zein kultura matxista identifikatzeaz gain, horiei aurre egiten die jarrera kritikoarekin, urratzailearekin eta positiboarekin; bai estrategia kolektiboen, bai norbanako estrategien bidez.
4. Neskak autodefentsazko eta ahalduntzezko jarrerak azaltzen ditu, indarkeria sexistaren eta ezberdintasunen aurrean.
5. Mutilak jarrera autokritikoan erakusten ditu: ezberdintasun egoeren, kultura matxistaren eta indarkeria sexistaren aurrean jarrera proaktibo eta konprometituan, Estrategia kolektiboen zein norbanakoen bitartez, korporatibismo maskulinoarekin hausten dutenak.
6. Indarkeria sexistaren ikuspegi sentsazionalistatik urruntzen da eta emakumearen biktima irudia gainditzen du.
7. Indarkeriaz hitz egiterakoan ohiko estereotipoak gainditzen ditu; alegia, ez da mugatzen bikote/bikote ohi harremaneko indarkeria fisikora. Aldiz, gazteek bizi dituzten askotariko indarkeriak identifikatzen ditu, eta baita horiek zein testuingurutan eta espaziotan gertatzen diren ere.

Adierazpen artistiko mota oro onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko formatuan aurkezten bada: flashmob; kamera aurrean errezitatutako poemak edo irakurritako gogoeta-testuak; argazkiak, argazki-muntaiak edota fotonobelak; lipdubak; dantzak, film laburrak; animazio proiektuak; proiektuak edo artelanak bideoan; performanceak eta kaleko esku hartzeak, etab.

Kontutan hartuko da ea mezuak modu originalean igortzen diren. Bereizki baloratuko da begiraden zabalpena gazteek egunerokoan bizi dituzten indarkeriak identifikatzeko orduan, zein enfoke erabili den eta emandako ebazpenaren tonua (Beldur Barik Jarrera, humorea, erantzun positiboak etab.)

2. PARTE HARTZAILEAK



Euskal Autonomia Erkidegoko 12 eta 26 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal dute, bi kategoriatan:

1. kategoria: 12 – 17 urte

2. kategoria: 18 – 26 urte

Banaka zein taldeka parte hartu ahal dute, ikastetxe, ikasgela edo elkarte gisa.

Taldeko norbaitek 18 urte edo gehiago baditu, proiektua 2. kategorian sartuko da zuzenean.

Lehiaketan aurkezten diren 18 urtetik beherako gazteek oinarri hauetako **1. edo 2. eranskina** bete eta aurkeztu behar dute.

** 1 Eranskina, norbanako baimena: amaren, aitaren edo tutore legalen baimena da adin txikikoek Beldur Barik lehiaketan parte hartu ahal izateko.*

** 2 Eranskina. Lana hezkuntza zentroko gela bezala aurkeztekotan, 2 eranskina erantsi beharko da weguneko formulario bidez. Baimena betetzea zentroaren ardura izango da, eta zentroaren beraren ardura izango da adin txikikoen baimenen kudeaketaz.*

** Lana gazteleku edo elkarte bezala aurkezten bada, arduradunak jaso behar ditu baimenak (1 eranskina beteta parte hartzaile bakoitzaren kasuan) eta denak batera bidali.*

3. AURKEZTU DAITEKEEN PROIEKTU KOPURUA

Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke.

4. AURKEZTEN DIREN PROIEKTUEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

· Proposamenek lehiaketaren helburuari erantzun behar diote: indarkeria sexista prebenitzea. Proposamenen edukiek helburuarekin zerikusirik ez badute, edo horren aurka egin zein kalterakoak badira, lehiaketaren antolatzaileek erabaki dezakete lana ez onartzea.

· Proposamenak originalak izan behar dira, hau da, inori plagiatu edo kendu gabekoak. Horren susmorik badago, autoretza frogatzeko eskatu ahalko da.

· Proiektuak ezin izango dira Beldur Barikekin loturarik ez duten beste jaialdi edo lehiaketa batzuetara aurkeztutakoak izan.



- Piezak euskaraz, gaztelaniaz, bietan, edo beste hizkuntza batean aurkeztu ahal dira (azken kasu horretan, euskarazko edo gaztelaniazko azpigituluekin).
- Proiektuek gehienez 5 minutu iraungo dute, kreditu-tituluak barne.
- Musika edota irudiak erabiliz gero, egile-eskubiderik gabekoak erabiltzea gomendatzen da (hau da, copyleft lizentzia daukatenak, edo norberak sortutakoak). Egile-eskubideak dituzten abestiak edo irudiak erabiliz gero, parte hartzaileek bere gain hartuko dute bideoa igo deneko plataformak edo autoretza eskubideak dituenak bideoaren aurka hartutako neurriak. Era berean, egiaztatzen bada jabetza intelektualaren araudiaren urraketa sortu dela, antolakuntzak lana ez onartzea erabaki dezake.
- Proiektu guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira, bideo-plataforma baterako esteka bat jarritz (Youtube edota Vimeo).

Bestelako berezitasun zehatzak:

- 18 urtetik beherako guztiek baimenak erantsi beharko dituzte egoki beteta (hutsune guztiak beteta eta sinatuta), webgune bidezko formularioa betetzerako orduan. Baimena 1 edo 2 eranskina beteta aurkeztuko da (oinarriekin batera datoz.)
- Baimenak sinatuta erantsiko dira webguneko formularioko dagokion atalean.
- Youtubera edo Vimeora igotako bideoetan bideoaren izena, zein udalerritatik eta zein kategoriatan aurkeztu den jarriko da. Ez da gehituko parte hartzaileen izen abizenik ez eta taldearen izenik ere.

5. NOLA PARTE HARTU

1. Deialdi honetan parte hartu nahi duten pertsonak osorik bete beharko dute www.beldurbarik.org, webgunean dagoen formularioa (lehiaketaren atalean, oinarri hauekin batera).
2. Behin formularioa beteta eta plataforma bidez igorrita, mezu bat azalduko da webguneko atarian adieraziz izen ematea modu egokian egin dela. Horretaz gain, erantzun automatikoa bidaliko da erraztutako email helbidera baieztatuz lana jaso dela.
3. Lana jasota antolatzaileek oinarri hauetako 4. ataleko baldintza guztiak betetzen direla egiaztatuko dute. Behin ziurtatuta lanak baldintza guztiak egoki betetzen dituela, antolatzaileek email bidez emango dute jakitera lana onartua izan den edo ez. Onartutako lanak Beldur Barik webgunean erakutsiko dira.

VITORIA-GASTEIZKO LEHIAKETA

Goian azalduetako erkidegoko lehiaketaren baldintzez gain, Vitoria-Gasteizko 6. lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek udalerrian bizi behar dute.

Proposamenak banaka edo taldeka aurkeztu behar dira. Taldeen kasuan, taldeko kideren batek 2. mailakoei dagokien adina badu, aurkeztutako lana kategoria horretan sartuko da automatikoki.

Deialdi honetan parte hartu nahi duten pertsonak www.beldurbarik.org webgunean dagoen formularioa osorik

bete beharko dute (lehiaketaren atalean, oinarri hauekin batera). Behin formularioa beteta eta plataforma bidez igorrita, mezu bat azalduko da WEB gunean izen ematea modu egokian egin dela adierazteko. Horretaz gain, erantzun automatikoa bidaliko da emandako email helbidera baieztatzeko lana jaso dela. Lana jasota, antolatzaileek oinarri hauetako 4. ataleko baldintza guztiak betetzen direla egiaztatuko dute. Behin ziurtatuta lanak baldintza guztiak egoki betetzen dituela, antolatzaileek email bidez emango dute jakitera lana onartuta izan den edo ez. Onartutako lanak Beldur Barik webgunean erakutsiko dira.

Udalak antolatutako lehiaketara aurkeztu diren lanek erkidegoko sarietan ere parte hartuko dute automatikoki.

6. LANAK AURKEZTEKO



Lehiaketa irekitzeko eta lanak jasotzeko epea 2016eko irailaren 9an hasiko da eta 2016eko azaroaren 9an amaituko da (biak barne).

BERTAKO LEHIAKETA

Bertako lehiaketara aurkeztutako lanak jasotzeko epea 2016ko azaroaren 9an amaituko da (egun hori barne).

7. SARIAK

1. kategoriako saria: 500 €

1. kategoriako aipamen berezia: 300 €

2. kategoriako saria: 500 €

2. kategoriako aipamen berezia: 300 € Saria ikus-

entzunezko ekoizpen onenari*: 300 €

Herriaren saria*: 300€

Aurkeztutako lanek aukera izango dute parte hartzeko, bai lehiaketa orokorrean, baita udalerrietako herri lehiaketetan ere. Kontuan izan herri guztiek ez dutela antolatzen Beldur Barik herri lehiaketak.

Goian deskribatutako sariei zerga-atxikipen egokia aplikatu zaie dagoeneko.

** Ikus-entzunezko ekoizpen onenaren saria Beldur Barik Jarrera! mezua adierazteko kalitatezko baliabideak edota kode artistikoak erabiltzen dituen lanari emango zaio (bi kategorietako edozeini. Lehiaketako antolakuntzak saria hutsik izendatzeko eskubidea du.*

*** Herri bozketaren saria bi kategorietara aurkeztutako edozein lani emango zaie, baldin eta lan horiek Beldur Barik Jarrera! lehiaketako antolatzaileek aurretik hautatutakoan artean badaude.*

BERTAKO SARIAK

Vitoria-Gasteizko Udalak sari hauek emango ditu:

Lehen kategoria, 12-17 urte:

Lehenengo saria: 300 €

Bigarren saria: 200 €

Aipamen berezia: 100 € (epaimahaiak sari hau egokitzen jotzen badu soilik).

Bigarren kategoria, 18-26 urte:

Lehenengo saria: 300 €

Bigarren saria: 200 €

Aipamen berezia: 100 € (epaimahaiak sari hau egokitzen jotzen badu soilik).

8. EPAIMAHAIA



Antolakuntzak epaimahaia izendatuko du. Epaimahaia osatzen duten proiektu honi lotutako erakundeetako ordezkariak, eta sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduetako eta berdintasun politiken alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministek.

Epaimahaiaren eginkizuna da bi kategorietan aurkeztutako lanei buruz eztabaidatzea eta proiektu irabazleak zein aipamen bereziak hautatzea.

Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

BERTAKO EPAIMAHAIA:

Gasteizko gazteek aurkeztutako proposamenak aztertzeko eta sariak emateko, Vitoria-Gasteizko Udalak epaimahai bat izendatuko du. Epaimahai hori berdintasun politikan eta emakumeekiko indarkeriaren aurka lan egiten duten zenbait pertsonak osatuko du. Pertsona horiek zeintzuk izan diren aditzera emango da epaimahaiak erabakia jendaurrean jartzen duenean.

Ezin izango zaie aurka egin epaimahaiak hartutako erabakiei.

9. EPAIMAHAIAREN EPAIA

Lan sarituak ezagutzera emango dira azaroaren 26an, URIBE-KOSTAKO URDULIZ (Bizkaia) udalerrian ospatuko den Beldur Barik Topaketan.

Bestalde, bozketa bidezko herria saria izendatzeko funtzionamendua honako hau izango da:

- Epaimahaiak alde aurretik egingo du aurkeztutako bideoen aukeraketa bat, hain zuzen ere, Beldur Barik Jarrera irizpideak modu egokian adierazten dituzten lanekin (oinarrietako lehen puntuan jasota datozenak). Horiek izango dira herri bozketara pasatuko diren lanak.
- Parte hartzearen saria izendatzeko herri bozketa sistema azaroaren 18an aktibatuko da.
- Parte hartzearen saria irabaziko du azaroaren 21eko 23:59etan botu gehien eskuratu dituen lanak. Izan ere, egun eta ordu horretan, bozketa prozesua itxi egingo da.
- Bozketa Beldur Barik webgunetik zein sare sozialetatik jarraitu ahal izango da: Facebook, Twitter eta Instagram bidez..
- Prozesuan irregulartasunik aurkitzen bada (webguneko hackeoa, email masiboak sorrarazteko aplikazioen erabilera, webgunearen identitatearen ordezkapena), herria saria hutsik gera liteke.

VITORIA-GASTEIZKO UDALAK HARTUTAKO ERABAKIA:

Udal lehiaketaren sariak 2016ko abenduaren 2an emango dira aditzera Goiuri jauregian. Irabazleei zuzenean jakinaraziko zaie eta www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna web orrian emango dira argitara.

10. LEGE-ALDERDIAK



Lehiaketara aurkeztutako pertsona parte hartzaileek baimena ematen diote Beldur Barik Programari, lana erabiltzeko BB inguruko ikus-entzunezko zein inprimatutako materialak sortu eta promozionatzeko eta hedatzeko. Parte hartzaileek, gainera, honako ekintza hauetara baimentzen dute programa:

- Publikora irekitako erakustaldietan lanak erreproduzitzera eta proiektatzera (Topaketan, programaren aurkezpen saioetan...)
- Lanak egokitzera proiektatu edo erreproduzitu ahal izateko beharrezkoak diren formatuetara.
- Laneko irudiak edo pasarteak erabiltzera programaren aurkezpen materialetan sartzeko (lanzamendu spot-a, pieza grafikoak etab.)

Dena den, lanen bat hezkuntza edo kultur helburuekin erabiltzekotan, Beldur Barik Programa harremanetan jarriko da formularioan zehaztutako kontaktuzko pertsonarekin. Norbait ados ez badago klausula honekin, antolatzaileei idatziz informatzea eskertuko da.

Lehiaketako antolakuntzak ez du erantzukizunik bere gain hartzen, baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa, erreklamaziorik egonez gero. Era berean, parte hartzaileek beren autoretza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

EMAKUNDEK, indarrean dagoen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten dizu zuk emandako datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen jabetzako datu pertsonalen fitxategi automatizatueta sartuko direla. Fitxategi honetako datuen erabilera bakarra, zeinak ez diren esleituko hirugarren batzuei, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera mugatzen da.

Nahi baduzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatu ahal dituzu, Legean aurreikusitakoari jarraituz. Horretarako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera jo dezakezu (k/ Manuel Iradier 36, 01005 Gasteiz).

11. ANTOLAKETA



Emakundek antolatu du, eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako aldundiek, Berdinsareak eta EUDELe bultzatzen dute, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren laguntzaz.

Informazio gehiago hemen:

www.beldurbarik.org

jarrera@beldurbarik.org

Harremanetarako: 645 73 72 03

BERTAKO LEHIAKETA:

Vitoria-Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak antolatuta.

Informazio gehiago orri hauetan:

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna eta www.beldurbarik.org

945 16 13 45

1.



AMAREN EDOTA AITAREN, TUTOREAREN* BAIMENA ADINGABEKOEK BELDUR BARIK LEHIAKETAN PARTE HAR DEZATEN.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:

.....andreak/jaunak, adinez nagusi,.....zenbakidun NAN duena, eta.....jaunak/andreak, adinez nagusi,.....zenbakidun NAN duena, helbidea.....n dutenak,.....telefono zenbakiarekin,adingabekoaren (.....urte dituen eta.....e-maila duena) ama / aita (edo tutore), eta beraz, legezko ordezkari, diren aldetik.

ADIERAZTEN DUGU

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoabetetzeko,

BAIMENA EMATEN DIOGU, BERARIAZ, gure.....alabari/semeari, Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n,(e)koaren(e)(a)n

* *Gaztearen guraso-ahala duten pertsonak baimena sinatu behar dute (bi badira, biek; zaintza eta babespea guraso bakarrak badauzka, nahikoa da beraren baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du.*

2. ERANSKINA



IKASTETXEAREN EDO ELKARTEAREN BAIMENA BELDUR BARIK LEHIAKETAN ADINGABEKOEK PARTE HARTU AHAL IZATEKO.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:.....
.....andreak / jaunak, adinez nagusi,..... NAN zenbakiarekin,
helbidean,telefono-zenbakia eta
.....e-maila dituenak, ikastetxearen
edo elkartearen arduraduna den aldetik, eta adingabekoen familien edota lege-ordezkarien baimena aurretik jasota:

ADIERAZTEN DU

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoabetetzeko,

BAIMENA EMATEN DIEGU, BERARIAZ, Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko antolatua, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n,(e)koaren(e)(a)n